



habitantes del futuro

Elikaduraren etorkizuna

Euskal biztanleriaren elikadura etorkizunaren
inguruko ikerketa



01. Sarrera

Janaria gizakion oinarriko zati bat da, bizirik irauteko behar dugun energia emateaz gain, gizakiok haren inguruan sortutako konstruktua soziala ere baita. Elikaturak erosteko modua, produktu batzuk edo besteak aukeratzen ditugu, eta horrek lotura handia du gure izateko moduarekin.


Gainera, gobernuentzat eta erakundeentzat eztabaidagaia da elikadura osasuntsua. Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, dieta osasuntsua izateak - malnutrizioaz gain- hainbat gaixotasun prebenitzen ditu; baina gaur egun elikagai prozesatuak eta/edo koipe, azukre aske eta gatz asko duten kontsumo dinamikak ematen dira, frutak, barazkiak eta dietako zuntzak kontsumitu ordez.

Horregatik, hiritarrak gero eta jakitunagoak direnean elikadura oker batek eragin ditzakeen arriskuen inguruan, eta kontuan izanik euskal kulturaren gastronomiak duen garrantzia, Euskadiko hiritarrek elikaduraren etorkizunean duten ikuspegia ulertu nahi izan dugu.

Osasuntsuago jango dugu? Janaria ikusteko modua aldatuko dugu?
Zer gertatuko da kontsumo patroiekin ingurumenaren babesari dagokionez?
Zein berrikuntza teknologiko eskatzen ditugu?

Ikerketa honetan galdera horiei eta beste batzuei erantzun nahi diegu, Euskadiko hiritarren iritzia, haien ikuspegiak eta elikaduraren etorkizunak ekarriko dituen aldaketen inguruan dakitena aztertuz.




A person wearing a dark hoodie is seen from behind, looking out at a sunset over the ocean. The sun is low on the horizon, creating a warm, golden glow. The text is overlaid on a dark, semi-transparent rectangular area in the center of the image.

**02. Nola irudikatzen
dugu
etorkizuna?**

Nola jango dugu etorkizunean

2050ean orain baino okerrago, berdin edo hobeto jango dugula

Hiritar guztiekiko %




Euskal gizartearen erdiak uste du 2050ean orain baino okerrago jango dugula; % 16,4k, aldiz, hobeto jango dugula.

Hiritar guztiekiko %

Jarraituko al du izaten janaria atsegin dugun une

Zein neurritan zaude ados 2050ean nola elikatuko garen dioten hurrengo esaldiekin?

Behar dugulako bakarrik jango dugu, ez atsegin dugulako




10etik 6k ez dute uste 2050 urtean gizakiek beharra asetzeko bakarrik jango dugunik eta ez atseginez.

Jarraituko al du izaten janaria atsegin dugun

*Etorkizunean ere jarraituko dutela uste duzu?
Markatu*

Hiritar guztiekiko %

Ordu bat baino gehiagoko bazkariak bazkalondoarekin



Gehienek uste dute, etorkizunean, **ordu bat baino gehiagoko bazkalondoak** existitzen jarraituko dutela.




Jarraituko al dugu janaria prestatzen

2050ari begira, zein probabilitate ematen diozu hurrengo gertakari bakoitzari?

Hiritar guztiekiko %

Ez dugu gure sukaldeetan janaria prestatuko eta janari guztia egina erosiko dugu




Nahiz eta % 40k uste duen 2050ean litekeena dela **gure etxeko sukaldeetan janaria prestatzeari uztea, erdiak uste du gertakari ez oso probablea edo batera probablea dela.**

Aldatuko al dira gure otorduak?


Zein ordutan jaten dituzu hurrengoak eta zein ordutan nahiko zenuke?

Hiritar guztiekiko %

Gosaria...



Bazkaria ...



% 50,5k 8ak baino lehen gosaltzen du, **nahiz eta % 61k beranduago gosaltzea nahiago balu ere.**

Aldiz, **bazkal ordua 13-14:00ra aurreratu nahiko lukete**, nahiz eta haien herenak bakarrik jaten duen ordu horretan (% 36,7), baina ia erdiak (% 46,8) nahiko lukeen.




Aldatuko al dira gure otorduak?

Zein ordutan jaten dituzu hurrengoak eta zein ordutan nahiko zenuke?

Hiritar guztiekiko %

Askaria... Afaria...




Nahiz eta gehienek askaririk ez jan, egiten badute, nahiago lukete arratsaldeko 5 eta 6

bitartean bada. Bazkarian bezala, **afaltzeko ordua ere aurreratuko lukete.**



Hiritar guztiekiko %


laneko bilerak egiteko bazkariak



10tik 7k uste dute, etorkizunean, **laneko bilerak egiten jarraituko dira** bazkari baten inguruan.

Desagertuko al dira laneko bilerak egiteko bazkariak?

*Etorkizunean ere jarraituko dutela uste duzu?
Markatu*




Jarraituko al dute existitzen txokoak edo elkarte


Etorkizunean ere jarraituko dutela uste duzu?
Markatu

Hiritar guztiekiko %

Txokoak (elkarte gastronomikoak)




Gehienek uste dute *txokoak* (elkarte gastronomikoak) **etorkizunean ere existitzen jarraituko**



Jarraitu al dira existitzen euskal bazkari

Euskadin belaunaldiekin izandako ohitura aldaketak gogoan izanda, hurrengo bazkarietako zein uste duzu desagertuko dela gure ohituretatik 2050 urtean?

Hiritar guztiekiko %




18 eta 24 urte bitarteko gazteek uste dute marmitakoa (% 12,9) eta pintxoak (% 9,5) desagertuko direla gehienbat.

Euskal hiritarrek ez dute uste haren gastronomiaren produktu tipikoak desagertuko direnik, baina txuleta da desagertzeko probabilitate handiena duena. Gazteek ere partekatzen dute ikuspegi hori, baina probableago iruditzen zaie marmitakoa eta pintxoak desagertzea.

Etorkizuneko supermerkatu idealaren

*Etorkizuneko
supermerkatuan
pentsatzen, zein
ezaugarri nahiko zenuke
edukitzea? Markatu behar*

Hiritar guztiekiko %




Plastikoen eta ontzien murrizketa eta produktu gehienak soltean eta hurbil izatea dira gehien eskatzen diren ezaugarriak etorkizuneko supermerkatu idealean.

Hiritarrak etorkizuneko elikaduran berrikuntza

Etorkizuneko elikaduran gerta daitezkeen hurrengo aldaketetatik, zein nahiko zenuke gertatzea? Markatu behar

Hiritar guztiekiko %




? 18 eta 24 urte bitarteko gazteek gehiago baloratuko lukete jatetxeetako ohiko haragiaren jatorria animalia ez izatea (% 26,6), elikagaiak etxean 3D inprimagailu batekin inprimatu ahal izatea (% 19,9) eta osagai bitaminikoak janarietan injektatu ahal izateko mikrokapsulak despentsan edukitzea (% 19,7).

Berrikuntza teknologikoak sor ditzakeen aldaketei dagokienez, erdiak nahiko luke **informazio gehiago izatea bakterio arriskutsuak daudenaren inguruan produktua eskaneatuz eta** eraikinetan **baratze bertikal** gehiago egotea.

Hiritarrak produktu eta elikagai berriak gure ohituretan sartzearen aurrean

Probatu al duzu edo jaten al duzu noizbait hurrengo produktuetako

Hiritar guztiekiko %



Kinoa da elikagairik ezagunena: 4tik 1ek noizean behin jaten du, eta % 61k probatu du. Gainera, **erdiak inguru probatu ditu chia haziak, kefirra eta algak**, nahiz eta elikagai horiek ez diren sartzen euren ohiko dietan. Aldiz, erdiak ez daki zer den edamamea, kalea eta kimchia, eta portzentaje hori % 73ra arte igotzen da konjac-aren kasuan.

Hiritarrak produktu eta elikagai berriak gure ohituretan sartzearen aurrean

Probatu al duzu edo jaten al duzu noizbait hurrengo produktuetako

"Noizean behin jaten dutenen" % adinaren arabera


	18-24	25-34	35-44	45-54	55-64	65+
Kinoa	23,7	35,7	36,1	27,6	22,7	13,7
Chia haziak	13,5	29,5	25,2	23,5	19,2	10,6
Kefirra	13,5	16,5	23,9	16,2	19,2	19,3
Algak	20,2	20,3	16,2	12,8	11,7	9,6
Edamame	23,3	22,8	15,5	12,0	7,7	0,0
Kombucha	6,7	15,3	9,4	5,4	8,4	1,1
Kale	6,7	10,2	6,1	5,6	8,3	3,2
Kimchi	0,0	6,2	1,5	3,7	3,3	2,1
Konjac	0,0	6,4	3,1	1,4	2,3	0,0

25 eta 44 urte bitarteko helduek - eta, bereziki 25 eta 34 urte bitartekoek- oro har, **jaten dituzte gehien halako elikagaiak.**


Beganismoaren eta begetarianismoaren etorkizuneko joerak

Dagoeneko bazara, izan nahi duzu edo


Hiritar guztiekiko %



Beganoa



Begetarianoa



Flexitarianoa

- Orain ere banaiz
- Ez naiz, baino nahiko nuke Ez
- naiz, eta ez dut nahi izan

% 13,5k murrizten du nola edo hala **animalia jatorriko** produktuen kontsumoa



18 eta 24 urte bitarteko gazteek jatorri animalia duten produktuen kontsumoa gehiago murrizten ez badute ere, nahiko lukete egitea.

10tik 1 flexitarianoa da, hau da, haragia edo arraina egun berezietan bakarrik jaten du); begetarianoen (% 2,8) eta beganoen portzentajeak (% 1,2) txikiagoak dira.




03. Osasuntsuago jango al dugu?

Etorkizun osasuntsuagoan

*Zein neurritan zaude
ados 2050ean nola
elikatuko garen dioten
hurrengo esaldiekin?*

Osasuntsuago jango dugu

Hiritar guztiekiko %




Euskal hiritarren erdiak ez du uste 2050ean gizakiok osasuntsuago jango dugunik.

Hiritar guztiekiko %

Informazio maila osasuntsuago jateko

Adierazi zein neurritan zauden ados etorkizuneko elikadurak dituen erronka batzuekin lotutako hurrengo

Informazio nahikoa dut modu osasuntsuan jateko nola jan behar dudanaren inguruan



18 eta 24 urte bitarteko gazteak eszeptikoagoak dira: % 36,7k ez du uste elikadura osasuntsuagoa izateko informazio nahikoa duenik.


Gehienek uste dute **informazio nahikoa dutela modu osasuntsuan jateko nola jan behar dutenaren inguruan.**

kuna
bbk 

Zabor-janaren etorkizuna


Zabor-janeko nazioarteko kateen (pizzeriak, hanburgeseriak, etab.) etorkizunari buruzko hurrengo zein baieztapenak

Hiritar guztiekiko %




Orain arte bezala jarraitu beharko lukete

Gehiago **45 eta 54** urtekoen bitartean (%)



Osasuna eta ingurumena nola kaltetzen duten azaltzen duen publizitatea jarri beharko lukete ikusgai

Gehiago **18 eta 24** urtekoen bitartean (%)




Desagertu beharko lukete

Gehiago **34 urtetik gorako**en artean (%)

% 60 inguruk uste du janari bizkorreko jatetxeek euren lokaletan bistara jarri beharko luketela produktu horiek kontsumitzeak kalteak eragin ditzaketela osasunean eta ingurumenean. Gainera, **% 15,7k** halako lokalak desagertu beharko luketela uste du.

Etorkizunean elikagaien inguruko arriskuak etiketetan

Hurrengo produktuetatik zeinetan uste duzu agertu beharko luketela gure osasunarentzat arriskuak? Markatu behar dituzun




Gehienek, emakumeek bereziki, uste dute osasunarentzat kaltegarriak diren elikagaietan haien arriskuak sartu beharko liratekeela, opil industrialetan gehienbat. Ardoaren kasuan, 10etik 4k soilik uste dute jakinarazi behar dela arriskua.

Obesitatearen etorkizuna

Adierazi zein neurritan zauden ados etorkizuneko elikadurarekin lotutako hurrengo

Hiritar guztiekiko %

2050erako bukatuko da obesitatea Euskadin




7 10 euskaldunetik eszeptikoak dira obesitatearen amaierarekin eta uste dute 2050ean ere Euskadin jarraituko duela egoten.


Zer aldatuko nuke osasuntsuago jateko?

Zure elikaduran zein aldaketak uste duzu lagungarriak izango liratekeela zure osasuna

Hiritar guztiekiko %



10 euskaldunetik 6ren arabera, fruta eta barazki gehiago jateak bere osasuna hobetzen lagunduko liekete. Gainera, erdiak uste du hori janari prozesatu gutxiago, azukre zuri edo gatz gutxiago jatearekin ere lortuko luketela, baina baita polikiago jaten ere.

The background image shows an industrial facility with several smokestacks emitting plumes of white and grey smoke. A large, dark, billowing plume of smoke rises from the center, partially obscuring the sky. The sky is filled with large, white, fluffy clouds. The foreground is a dark, flat expanse, possibly a body of water or a road. The overall scene is set during what appears to be dawn or dusk, with a soft, orange glow on the horizon.


**04. Kontuan izango al dugu
orain baino gehiago
klima krisialdia
elikatzeke
orduan?**

Etorkizunean ingurumena gehiago

Zein neurritan zaude ados 2050ean nola elikatuko garen dioten hurrengo esaldiekin?

Hiritar guztiekiko %

Ingurumena gehiago zaintzen jango dugu




Iritzi desberdinak daude etorkizuneko janariaren eta ingurumenaren arteko erlazioaren inguruan: % 44,6k uste du ingurumena gehiago zainduko dugula; % 42,8k, aldiz, alderantziz.

Hiritar guztiekiko %

Ingurumena zaintzen elikatzeko informazio maila

Adierazi zein neurritan
zauden ados
etorkizuneko elikadurak
dituen erroka
batzuekin lotutako
hurrengo

Informazio nahikoa dut ingurumena gehiago babesten duen janaria aukeratzeko




Iritzi desberdinak daude, baita ere, ingurumena babesten duen janaria aukeratzeko duten informazioaren inguruan: erdiak uste du behar adina informazio duela eta ia beste erdiak, aldiz, ez duela (% 45,1).

Zerk eragingo ditu elikadura erosketak etorkizunean?

2050ari begira, zein probabilitate ematen diozu hurrengo gertakari bakoitzari?

Hiritar guztiekiko %

Osasuna eta ingurumenaren zaintza izango dira kontsumitzaileen erosteko arrazoi nagusiak




% 50 baino apur bat gehiagok uste du **osasuna eta ingurumena zaintzea ez direla izango 2050ean erosteko arrazoi nagusiak.**

Industriaren berrikuntzan sinestea osasuna eta ingurumena babestuz eskaintza

2050ari begira,
zein probabilitate
ematen diozu hurrengo
gertakari bakoitzari?

Hiritar guztiekiko %

Elikadura industrian berrikuntzak egiten jarraituko dute janari osasuntsuagoak eta ingurumena zaintzen dutenak eskaintzeko



Euskaldunen **erdia baino gehiagok** uste dute elikaduraren industriaren **berrikuntzak etorkizunean** produktu osasuntsuagoak eta ingurumena gehiago zainduko duten produktuak eskainiko dituzte.


kuna
ББК 

Gobernuek osasuna eta ingurumena babesten ez duten produktuak debekatuko dituztela

2050ari begira, zein probabilitate ematen diozu hurrengo gertakari bakoitzari?

Hiritar guztiekiko %

Gobernuek elikagai ez osasuntsuak eta ingurumena zaintzen ez dutenak debekatuko dituzte




Egun, % 56k uste du ez dela batere edo ez dela probablea gobernuek debekatzea elikagai ez osasuntsuak eta ingurumena zaintzen ez dutenak 2050. urtean.

Hiritar guztiekiko %

Klima krisialdia arintzen nola lagundu dezakegu gure elikadura

Hurrengo ekintzetatik, zein uste duzu lagungarriak izan daitezkeela klima




Elikagaiak botatzea saihesteak lagunduko luke gehien klima aldaketa arintzen: 10etik 8k hori uste du. Tokiko produktuak kontsumitzea era lagungarria ikusten dute 6k 10. Aldiz, animalia jatorriko produktuen kontsumoa murriztea eta hozkailua aldatzea ingurumena babesten duen baten ordeztu, neurri ez oso baliagarriak izango lirateke.

Emisioak gelditzeko laborategiko haragia garatzearen alde

Adierazi zein neurritan zauden ados etorkizuneko elikadurarekin lotutako hainbat alderdirekin


Hiritar guztiekiko %

Laborategiko haragia sortzea aukera ona izan liteke haragia jaten jarraitzeko eta berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko.



10etik 6k ez du sinesten laborategiko haragia aukera bideragarria denik kontsumitzen jarraitu ahal izateko eta industria honek eragiten dituen emisioak gelditzeko.

kuna
ББК 




**05. Elikadura subirano
jasangarri eta bidezkoago
baterantz goaz?**

Hiritar zaugarrienak elikagaietara iristea

*Zein neurritan zaude
ados 2050ean nola
elikatuko garen dioten
hurrengo esaldiekin?*

Hiritar guztiekiko %


Baliabide ekonomiko gutxiago duten hiritarrentzat eskuragarriago egongo da janaria



Euskal gizartea eszeptikoa da ahulenen elikaduraren irisgarritasunari dagokionez: 4tik ia 3k uste du 2050ean irisgarritasuna ez dela handiagoa izango.

Euskadiren etorkizuna: elikadura subiranotasuna eta

Adierazi zein neurritan zauden ados etorkizuneko elikadurarekin lotutako hurrengo



4 euskaldunetik 3k uste du Euskadi beste lurraldeekiko mendekotasuna izaten jarraituko duela elikagaiak lortzeko etorkizunean, baina 3tik 1ek uste du Euskadiko industria elikaduran erreferentea izango dela.


kuna
bbk 

Hiritar guztiekiko %

Oinarrizko elikagaietan esku hartzeren alde

*Adierazi zein neurritan
zauden ados
etorkizuneko
elikadurarekin lotutako
hurrengo*

Gobernuek oinarrizko elikagaien prezioan esku hartu beharko lukete




Gehienek uste dute gobernuek oinarrizko elikagaien prezioan esku hartu beharko luketela.

Elikaduraren industrian sortutako irabaziak berriz banatzeko eredia aldatzearen alde

Adierazi zein neurritan
zauden ados
etorkizuneko
elikadurarekin lotutako
hurrengo

Hiritar guztiekiko %

Euskadin, elikagaien industriak sortzen dituen irabazien banaketa bidezkoagoa egon beharko luke




3tik 2k uste dute Euskadin, elikagaien industriak sortzen dituen irabazien banaketa bidezkoagoa egon beharko lukeela.

Lehen sektorean sinestea lanpostuak

Adierazi zein neurritan
zauden ados
etorkizuneko elikadurak
dituen erronka
batzuekin lotutako
hurrengo

Hiritar guztiekiko %

Lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) beharrezkoagoa izango da eta lan aukera gehiago sortuko dira sektore honetan




Erdiak baino gehiagok uste du lehen sektorea beharrezkoagoa izango dela etorkizunean eta sektore honetan lan aukera gehiago sortuko direla.

Produktu ez osasuntsuei eta ingurumena zaintzen ez dutenei zergak igotzearen alde

Adierazi zein neurritan zauden ados etorkizuneko elikadurak dituen erronka batzuekin lotutako hurrengo

Hiritar guztiekiko %

Produktu ez osasuntsuei eta zaintzen ez dutenei zergak igo beharko liekete



Gehienak, produktu ez osasuntsuei eta ingurumena zaintzen ez dutenei zergak igortzearekin ados daude.



**06. Etorkizuneko
elikaduraren gakoak**

- #1 Euskal gizartea ez da batere baikorra elikaduraren etorkizunarekin:** ia erdiak uste du 2050ean orain baino okerrago jango dugula.
- #2 Aldiz, uste du jatea gozatzearekin lotuta jarraituko duela egoten:** % 60k baino gehiagok ez du uste gizarte gisa, behar dugulako bakarrik jango dugunik, eta etorkizunean bazkalondo luzeak egiten jarraituko dugula.
- #3 Janariaren inguruan sozializatzen jarraituko dugu etorkizunean ere.** % 69,5ren arabera, testuinguru horretan lan bilerak egiten jarraituko dira eta gehienek uste dute txoko edo elkarteak existitzen jarraituko dutela (% 84,4).
- #4 Hiritarrek ez dute probablea ikusten etxean janaria prestatzeari uztea** guztiz aurretik prestatutako janaria bakarrik jateko (% 52,1), nahiz eta euskaldunen % 6,3k uste duen oso probablea dela.
- #5 Gosariarena izan ezik, bazkaltzeko eta afaltzeko "europar" ordutegietara egokitzea oso positiboa izango litzateke,** eguerdiko 1 eta 2 bitartean bazkaltzea nahiago lukete (herenak dagoeneko hori egiten du) eta gaueko 8 eta 10 bitartean afaltzea.



**Nola irudikatzen dugu
etorkizuna?**

#6 **Gehienek uste dute euskal gastronomiaren funtsa ez dela galduko** (txuletoiak, marmitakoa, txapiroak beren tintan edo pintxoak esaterako).

#7 **Etorkizuneko supermerkatuei dagokienez**, Euskadiko hiritarrek ontzat hartuko lukete plastiko mota bat ere ez egotea eta solteko erosketa eta gertuko produktuena erraztea.

#8 **Hiritarrak ez daude etorkizuneko elikaduran berrikuntza teknologikoa erabiltzearen oso alde.** Halere, ia erdiari gustatuko litzaioke etxean elikagaiak eskaneatu ahal izatea kaltegarriak direnak detektatzeko eta baratze bertikalak egotea.

#9 **“Elikagai berrien” inguruan, 25 eta 44 urte artekoek sartu dituzte gehien haien dietan:** herenak baino gehiago kinoa kontsumitzen du noizean behin, eta laurdenak baino gehiagok jaten ditu aldiro chia haziak. **Gainera, bi horiek dira euskal biztanleek gehien kontsumitzen dituztenak**, kefirren eta algen aurretik.

#10 **Euskaldunen % 13,3k animalia jatorriko elikagaien kontsumoa nahita murriztu du** –flexitarioak, begetarianoak edo beganoak dira, lehenak gehienbat (% 10,6)-.




Nola irudikatzen dugu
etorkizuna?

- #1 **Herenak baino gehiagok uste du etorkizunean osasuntsuago jango dugula (% 37,1) , baina euskaldunen erdiak uste du ezetz.**
- #2 **Elikadura osasuntsua izateko informazio nahikoa duen baloratzeko orduan, 4 euskaldunetik 3 asertiboak dira, eta uste dute badutela nahikoa.**
- #3 **Janari bizkorreko jatetxeek, bestetik, kontsumitzaileen eta ingurumenean izan ditzaketen efektu kaltegarrien inguruko informazio gehiago eman beharko lukete.** Euskal hiritarren erdiak baino gehiagok uste du.
- #4 **Zenbait produkturen osasunarentzat efektu kaltegarrien inguruan, gehienek uste dute arrisku horiek ontzietan ere agertu beharko luketela, opil industrialetan eta haragi prozesatuetan bereziki. Aldiz, ardoaren kasuan, % 39,6k bakarrik.**
- #5 **Obesitateari lotuta, gehienek uste dute Euskadin jarraituko duela existitzen 2050ean (% 81,6).**
- #6 **Bukatzeko, osasuna hobetzen lagunduko duten ereduak bilatzearen inguruan, fruta eta barazki gehiago jatea ohitura bihurtu nahiko lukete 10 euskaldunetik 6k, eta % 13,5k bakarrik uste du bere osasuna hobetuko litzatekeela ardoaren kontsumoa**

*Osasuntsuago jango al
dugu?*


A hand wearing a beige sweater sleeve holds a clear glass filled with white yogurt, topped with golden-brown granola and fresh blueberries. The background is softly blurred, showing a white surface and some greenery.

- #1** Jateko dugun moduarekin ingurumena babestearen inguruan iritzi desberdinak daude: 10etik 4k uste dute etorkizunean presentego egongo dela; aldiz, antzerako portzentajeak ez du iritzi bera.
- #2** Modu osasuntsuan jateko **informazio nahikoa** duela gehiengoak uste badu ere, portzentaje hau % 48ra arte jaisten da ingurumena gehien babestuko duen janaria aukeratzeko informazioaren inguruan galdetzen dugunean.
- #3** **Erdiak** (% 52,9) ere ez du probabletzat ematen **kontsumitzailearen osasuna lehenestea** eta ingurumena babestea izango direnik etorkizunean erosteko motor nagusiak.
- #4** Erdia baino apur bat baino gehiago baikorra da elikaduraren industrian aldaketa baten inguruan: % 54k uste du **produktu osasuntsuagoak** eta ingurumena gehiago babesten dutenak eskaintzeko berrikuntzak egingo dituztela.
- #5** % 60 inguruk **ez du probable ikusten, ezer ez edo oso gutxi, gobernuek elikagai ez osasuntsuenak eta ingurumena babesten ez dutenak debekatzea** (% 56,0).
- #6** Klima krisialdiaren hedapena arintzen lagun dezaketen ekintzei dagokienez, **elikagaiak botatzea murriztea eta tokiko kontsumoa areagotzea** dira eraginkorretakotzat ematen diren biak. Aldiz, **ez dute uste laborategian sortutako haragia** aukera bideragarria denik helburu horretarako.



*Kontuan izango al
dugu orain baino
gehiago klima
krisialdia elikatzeko
orduan?*

- #1 **10 euskaldunetik 7k uste dute**, etorkizunean, **hiritar zaugarrienentzat eskuragarriago ez dela egongo janaria.**
- #2 **Euskadiren funtzioari dagokionez, gehienek (% 72,1) uste dute elikadura arloan beste lurralde batzuen mende jarraituko duela egoten;** eta, aldea handia ez bada ere, gehiagok uste dute **lurralde honetako industria ez dela erreferente izango elikadura arloan (% 43,2).**
- #3 **Euskal hiritar gehienak daude elikagaien prezioaren kontrolaren alde** : % 77,3 ados dago honekin.
- #4 **Lehen sektorearen beharrak** (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza), **handiagoak izango dira**, eta sektore horretan enplegua areagotuko da euskal hiritarren % 60,3ren ustez.
- #5 **10etik 6k** ados egongo litzateke **osasuntsuak ez diren eta ingurumena babesten ez duten produktuei zergak igotzearekin.**



*Elikadura subirano
jasangarri eta
bidezkoago
baterantz goaz?*



07. Fitxa teknikoa

Fitxa teknikoa



UNIBERTSOA

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren
18 urte edo gehiagoko biztanleak



LAGINAREN TAMAINA

1.000 inkesta
Kuotak genero, adin eta probintziako



LANDA-LANA

2022/09/27tik 2022/10/03ra



PROZEDURA

Online inkesta (CAWI)



LAGINAREN ERROREA

$\pm 3,1$ puntu portzental, $p=q=\% 50$ izanik, eta % 95eko konfiantza-tartea,
hausazko laginketa sinplea.



GALDERA-SORTA

7 minutos + galdera soziodemografikoak

40dB.

www.40dB.es



info@40dB.es



+34 914 120 938



C/ del Infante,



3 28014,

Madrid